

Bergarako XAXAU Konpartsa eta Bergarako Udalaren arteko hitzarmena, 2023ko Bergarako San Martin jaietan txosna gunean hainbat ekintza kudeatzeko betebeharrak jasotzen dituen

Bergaran 2023ko irailaren 12an

BILDURIK

Alde batetik, Gorka Artola Alberdi jauna, Bergarako Udaleko Alkate-Lehendakaria, Bergarako San Martin Plaza 1-ean egoitza izan eta P-2007900-J I.F.K eta erakunde horren ordezkaria dena, M^a Concepción Ugalde Izeta Udaleko idazkariaren laguntzarekin.

Bestetik, Iosu Agirre Gurrutxaga 72.492.532-M NAN zenbakia duena, G-75084921 IFK izan eta Errotalde jauregia z/g – 20570 Bergara (Gipuzkoa) egoitza duen XAXAU KONPARTSaren ordezkari izan.

Iosu Agirre Gurrutxaga jaunak, alkatearen aurrean adierazi ondoren berak ordezkatzeko duen elkarte ez dagoela estatuaren 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 legeak aurreikusitako debeku kasuetan, bi aldeek elkar behartzeko ahalmena aitortu eta ondorengo

ADIERAZI DUTE

1. XAXAU KONPARTSAk 2023ko Bergarako San Martin jaietan, hau da, irailak 15, 16 eta 17an, Munibe plazan kokatuko den txosna gunea eta bertako egitaraua antolatuko lukeela eta proposamen bat luzatu dio Udalari eta ados egonez gero egitarau hori aurrera eramateko Udalari laguntza eskatu dio.
2. Bergarako Udalak positiboki baloratzen du ekintza hori, Bergarako Udalak Munibe plazan txosna gunean hainbat musika ekintza eta ekitaldi antolatu izan dituelako, eta Udalak egin behar izango lukeen antolaketa XAXAU Konpartsak planteatu duenarekin ordezkatzeko aukera ikusi du.
3. Alkateak, dekretuz, 2023ko irailaren 8an erabaki duela, 3.000€-ko diru laguntza ematea, eta bi aldeek betebeharrak hitzarmen batean jasotze.

Beraz, honako hitzarmen hau egitea erabaki dute, ondorengoak izanik

KLAUSULAK

Lehen. XAXAU Konpartsak Bergarako 2023ko San Martin jaietan Muniben, txosna gunean, egiteko festa egitaraua aurkeztu dio Bergarako Udalari, eta egitarau hori aurrera eramateko eta

txosna ustiatzeko konpromisoa hartzen du (**dokumentu honi eranstean zaizkio aurkeztutako egitaraua eta aurrekontua bi aldeek sinatuta**).

Bigarrena.- Hitzarmen honetan Udalarenak bezala espresuki jasotzen ez diren betebeharrak denak XAXAU konpartsak izando dira, besteak beste, honako hauek, eta betetzeko konpromisoa hartzen du:

- a) Hirugarren atalean aipatzen diren egituretatik apartekoak XAXAU Konpartsaren kontura izango dira, bai kontratatzeko ardura eta bai izango duten kostea eta jarri eta kentzeko ardura.

Egun hauetarako, XAXAU konpartsak bestelako instalazio edo eranskinik beharko balu, bere kontura muntatu eta kendu beharko du, eta aurrez okupazioa zelakoa izango den Udalean jakinarazi beharko du. Instalazio hori ere txosna gunea husteko epe berean kendu beharko du.

- b) Udalak egingo dituen ikuskapenak ez oztopatzea.

- c) Gunea egunero Udalak 10:30 aldean garbituko du, XAXAU konpartsak hau ahalbideratu beharko du.

- d) Txosna gunean ez da pertsona/talde bat irainduko duen kartelik/irudirik jarriko, eta norbaitek jartzen badu berehala kentzeaz arduratuko da.

- e) Txosna gunean ez da irudi/esaldi sexistarik duen kartelik jarriko, eta norbaitek jartzen badu, berehala kentzeaz arduratuko da.

- f) Txosna gunean Udalerriko hizkuntzaren erabilera irizpideak jarraituz, euskarak derrigorrezko presentzia nabarmena izan beharko du ahozko zein idatzizko edozein adierazpideretan.

- g) "Erasoen kontrako protokoloaren inguruan" Udalak ateratako kartelak leku ikusgarrian jarriko dira txosnetan eta erasoen kontrako protokoloaren inguruko informazioa ezagutu eta emango dute beharrezko denean.

- h) Irailaren 16an, larunbata, herri bazkaria antolatuko du Munibe plazan.

- i) SGAEkin dauden betebeharrak XAXAU konpartsak gestionatu beharko ditu, eta ordainketarik balego, ordaindu.

- j) Txosnaren jardura irailaren 15etik 16ra izango da, biak barne, eta 17an Xaxau elkarteak jasoketa lanetan arituko da.

Txosna gunea utzitako baldintza berdinetan bueltatu beharko da eta libre utzi beharko da irailaren 18an, astearte, lehenengo ordurako.

- k) Ordutegia;

1. Irekiera, irailaren 15ean, 19:00etan eta Irailaren 16an 13.00tik aurrera.

2. San Martin plazan ekintzak daudenean, ezingo da txosnan musikarik ipini:

- 2.1 Irailak 15ean, 18:30 – 20:00 Txorotxaranga ikuskizun ibiltaria (plazan dagoen bitartean.)

- 2.2 23:30ean, Helduen danborradan, San Martinen errepresentazioa eta 00:15ean, Joselu Anaïen kontzertua.

- 2.3 Irailak 16an, 12:30ean, Bergarako Musika Bandaren kontzertua eta haurren daborrada 18:30etan.

3. Itxiera

- 2.1 Irailaren 15 eta 16an 05:00tan musika itzali eta 06:00tako itxi beharko da.

- 2.2 Irailaren 17an txosna ez dutela irekiko adierazi du elkarteak

- l) Adin txikikoei alkohola ateratzea debekatuta dago eta betebeharrak hartuko da.
- m) Adin txikikoak lanean aritzea, ahal den neurrian, sahiestu beharko da.
- n) Bergarako Udala jakinaren gainean jartzea baldin eta Udalak diru-ekarpena egiten duen jarduerarentzat beste laguntzarik edo ekarpenik lortuz gero. Beste nonbaitetik diru-ekarpenik jasoko dela jakin bezain azkar jakinarazi behar zaio Udalari, eta, betiere, azken zatia ordaindu baino lehen.
- o) Gutxienez sei urtez gordetzea jasotako diruari eman zaion erabilera agertzen duten agiri originalak. Epe horretan, Bergarako Udalak horrela erabakiz gero, dokumentu horiek aztertu ahal izango ditu.

Hirugarrena.- XAXAU Konpartsak egitarauaren gainean egindako publizitatean (kartelak, esku programak....) Bergarako Udalaren laguntza duela adierazi beharko du, tamaina ikusgarri batetan, XAXAU logoaren alboan eta adierazita laguntzailea dela. Betebeharrak hau ez bada betetzen, 4. puntuan jasotako diru-laguntza automatikoki %5ean murriztuta geratuko da.

Laugarrena.- Bergarako Udalak txosnagunearen kudeaketarako ondorengo betebeharrak hartuko ditu bere gain:

- a) Munibe lagatzea txosna gune gisa erabiltzeko.
- b) 10 X 15 metroko karpa muntatzea eta 8X6ko tarima, karpa barruan, irailaren 14rako.
- c) 4 hesi handi eta 4 hesi txiki txosnagunea babesteko.
- d) 6x4 neurriko txosna muntatzea Munibe plazan irailaren 13an, goizeko 1ngo orduan. Udaleko langileek txosnari dagozkion lanak egin ondoren txosna batzordekoen esku egongo da irailaren 14 arratsalderako.
- e) Txosna gunean sortzen diren hondakinak sailkatzeko edukiontzia: Organiko 1 (120 litrokoa), Papera 1, Beira 2 eta Ontzi arinen 2. Errefusarako txikiago bat eskatu da (50 litrokoa?).
- f) Irailaren 16an egingo den herri bazkarirako gehienera 26 mahai eta 200 aulki uztea.
- g) Komunak kokapena: Munibe plazako esker pasiloan jartzea Pixatoki 1, komun normal 1 eta egokitu 1. (Ondo baloratu dira lurrian rejilla daukaten komunak eta eskuak garbitzeko ura daukatenak).
- h) Irailaren 14an, 15:00ak baino geroago, furgoneta bat uztea (Vivaro edo horelako) txosnagunea muntatzeko, eta irailaren 17an, igandea, arratsalde/iluntzean 15:00ak baino geroago furgoneta bat uztea txosnagunea desmuntatzeko.
- i) Aparkalekuak, Komenio kalean. Xaxau taldea matrikulak eta ibilgailu kopuruak zehazteko gelditu da.
- j) Txosna gunerako elektrizitate eta ur hartuneak egin eta horien kostua Udalak beregain hartzea. Baita, irailaren 15 eta 16ko kontzertuetarako musika ekipoaren kostua Udalak beregain hartzea.
- k) Gunea egunero garbitzea 10:30 aldean.
- l) Argindarra irailaren 14an txosnako kamara martxan jartzeko.
- m) "Erasoen kontrako protokoloaren inguruan" ateratako txartelak eta kartelak ematea, Udalak hala erabakiz gero.

- n) Seminarixoko ezkerreko pasiloa erabiltzen lagatzea irailaren 16an. Horretarako Xaxau-k giltzaren arduraduna izendatu beharko du eta pertsona hori udaleko langileekin koordinatu beharko da giltza hartu eta bueltatzeko.

Bostgarrena.- Bergarako Udalak lehenengo puntuan aipatutako egitaraua burutzeko 3.000€ko diru-laguntza ere emateko konpromisoa hartzen du.

1. Diru-laguntzaren 1.800€ 1. zatia (diru-laguntzaren %60a) ordainduko da bi aldeek hitzarmen hau sinatu ondoren.
2. Bigarren zatia, %40, 1.200€ jasotzeko ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko ditu XAXAU Konpartsak:
 - a. Dirulaguntza ordaintzeko eskabidea
 - b. Balantzea izandako diru-sarrera eta gastuak jasotzen dituen eta elkarteko ordezkariak sinatuta (izen abizenak eta NAN zenbakia adieraziz)
 - c. Aurrekontuarekiko desbideratze esanguratsuak
 - d. Gastuen zerrenda sailkatua eta ekintzaren antolaketan sortutako gastuen justifikazioa. Fakturak edo ordainagiriak Xaxau Kultur Elkartearen izenean aurkeztu behar dira. Ordainagirien kasuan dirua jaso duenaren izen abizenak, NAN zenbakia eta diru kopurua zehaztu behar dira agiri edo errezibo originalekin edo originalen kopia konpultsatuekin.
 - e. Diru-sarreraren zerrenda sailkatua
 - f. Programatutako jardueren dokumentazio grafikoa (kartelak, liburuxkak, prentsa oharak, etab.).
 - g. Jardueraren balorazioa.
 - h. Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo -laguntza batzuen zerrenda zehatza eta haien zenbatekoa eta jatorria. Dagokion dokumentazioa ere erantsi behar da. Bestelako laguntzarik ez bada jaso, hala adierazi behar da.
 - i. Faktura, agiri edo erreziboen kopiak eta horien ordainketa agirienak ere bai.

Seigarrena.- Bergarako Udalak XAXAU Konpartsari emango dion 3.000€ko diru-laguntza horren barne daude egitaraua aurrera eramateko beharrezkoak diren gastu guztiak, besteak beste ondorengoak:

- XAXAU Konpartsak Bergarako San Martin jaietarako kontratatu dezakeen pertsonal teknikoaren lansariak, gizarte segurantzako gastuak, eta baita horien dietak eta alojamendu gastuak ere, horrelakorik egonez gero.
- Ikuskizunerako beharrezko diren pertsonalaren eta materialen garraio gastuak.
- Ikuskizunak aurrera eramateko beharrezko diren elementu guztiak.
- Ikuskizunak aurrera eramateko beharrezko diren erantzukizun zibileko polizak, gutxienez 240.404,94€ topearekin.
- Ikuskizun horiek kontratatu eta aurrera eramateak eragindako gastu eta koste guztiak.
- Sortu daitezkeen beste hainbat gestio edo gastu.

Zazpigarrena.- Jaiak amaitzen direnetik kontatzen hasita, gehienez ere bi hilabeteko epean, lagundutako jardueren balorazioa eta laugarren puntuan jasotako dokumentazioa aurkeztu beharko ditu XAXAU Konpartsak.

Txosten ekonomikoan justifikatutako gastua emandako diru ekarpena baino txikiagoa balitz, Udalak zati bat itzultzea eskatu ahal izango dio. Txosten ekonomiko horretan XAXAU Konpartsak egitarau honetarako izandako bestelako diru-sarrerak ere agertu beharko dira. Beraz, baliabide propioekin lortutako diruarekin eta Udalak edota beste entitate batzuk emandako diru-ekarpenarekin XAXAU Konpartsak gastua baino diru sarrera handiagoa lortuko balu Udalak eskubidea izango du era berean diru-ekarpen osoa edo zati bat itzultzea eskatzeko, edo diru-ekarpenaren bigarren zatia eman gabe utzi edo partzialki emateko. Dena dela, gastua aurrekontuan jasotakoa baino handiagoa izan bada, Udalak ez du diru-ekarpen berririk egingo.

Udalak XAXAU Konpartsari egindako diru-ekarpen osoa edo zati bat itzuli beharra dagoela erabakiko balu, diru kopuru hori zuzenbide publikoko sarreratzat hartuko da.

Zortzigarrena.- Udalak egingo duen diru-ekarpenaz gain, helburu bera duen beste edozein diru-laguntza ere jaso daiteke, Udalari aurkeztuko zaion txosten ekonomikoan sarreretan azaldu beharko da.

Hala eta guztiz ere, diru-ekarpenak (Udalarenak berak edo beste batzuenak batuta) eta/edo bestelako sarrerak batuta ezingo du inola ere altuagoa izan.

Bederatzigarrena.- Diru-ekarpena egiteko kontuan hartu diren baldintzetakoren bat aldatuko balitz, edo Udalarenaz gain beste administrazio batek edo entitate pribatu edo publiko batek emandakoa jasoko balitz, gerta liteke emandako kopurua aldatzea

Hamargarrena.- Diru-ekarpena berrikusi egingo da eta, egoki bada, kendu, baldin eta hauetakoren bat gertatzen bada:

- a) Diru-ekarpenak bete beharreko baldintzak bete gabe gelditzea.
- b) Diru-ekarpena erabiltzea lortu beharreko helburua ez den beste helburu baterako.

Hamaikagarrena.- Hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoen guztia, diru-ekarpenak arautzen dituen 38/2003 Estatuko Legea, azaroaren 17koa, lege hori garatzen duen 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa eta Bergarako aurrekontuetako udal araua aplikatuko dira.

Hamabigarrena.- XAXAU konpartsak hitzarmen honen garapenerako antolatutako edo egindakoetan kalteen erantzule XAXAU konpartsa bera izango da eta Bergarako Udala kanpo gelditzen dela aitortzen dute bi aldeek.

Hamahirugarrena.- XAXAU konpartsak txosna gunean segurtasun neurriak eta egunean dagoen araudia errespetatzen direla bermatuko du.

Hamalauagarrena.- Alde bietako batek honako hitzarmen honetan harturiko betebeharretako edozein beteko ez balu, beste aldeak hautsi ahal izango luke, eta kalte-ordainak eskatu.

Eta adostasun frogagisa, bi aldeek dokumentu hau sinatzen dute goian aipatutako egun eta lekuan nik, idazkariak, guztia egiaztatzen dudalarik.



IDAZKARIA
Mª Concepción Ugalde Izeta



BERGARAKO ALKATEA
Gorka Artola Alberdi



XAXAU Konpartsa
Iosu Agirre Gurrutxaga